



**2023KO APIRILAREN 17KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko apirilaren hamazazpian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2023ko martxoaren 27an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 21 zenbakidun fakturen zerrenda, BERROGEITA HAMABOST MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMABI euro ETA LAUROGEITA HAMAIKA zentimokoa (55.532,91 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

**III.- AGAUNTZA ERREKAN, ELIZAREN ETA IKASTOLAREN ARTEAN, OINEZKOEN PASABIDEAREN KONTRATAZIOAREN ESLEIPENA.-**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko martxoaren 6an hartutako akordio bidez, Lazkaoko udalerrian Agauntza errekan, elizaren eta ikastolaren artean, oinezkoen pasabidearen obra prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko Berariazko Klausula Administrazioen eta Preskripzio Teknikoen pleguak eta kontratazio espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitazio deialdiaren iragarkia kontratatzaillearen profilean 2023ko martxoaren 7an jarri zen.

Eskaintzak aurkezteko epean, hiru proposamen aurkeztu ziren:

1.- DÍEZ Y COMPAÑÍA S.A.



2.- IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.

3.- CONSTRUCCIONES ECHAIDE S.A.

Aurkeztutako proposamenetatik, IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.A.-rena eta CONSTRUCCIONES ECHAIDE S.A.-rena izan ziren onartuak, DÍEZ Y COMPAÑÍA S.A.-rena baztertua izan zelarik.

Balio-iritzi baten arabera baloratu beharreko dokumentazioa jasotzen duen 2. artxibo elektronikoa 2023ko martxoaren 28an, goizeko 9etan ireki zen.

2. artxibo elektronikoak jasotzen duen dokumentazioaren azterketa egin ondoren honako puntuak eman zaizkio proposamenari:

ENPRESAK	Muntatzeko plana <i>(10 puntu)</i>	Trafikoan eraginak <i>(2 puntu)</i>	Oinezkoen eta bidegorri pasoan eraginak <i>(2 puntu)</i>	Beste eragin batzuk <i>(1 puntu)</i>	GUZTIRA <i>(15 puntu)</i>
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	10	2	2	0,4	14,4
CONSTRUCCIONES ECHAIDE S.A.	4	1,5	1,5	0,6	7,6

Proposamen ekonomikoak eta beraien puntuazioak hauek izan dira:

ENPRESAK	Prezioa		Bermea		GUZTIRA <i>(85 puntu)</i>
	Zenbatekoa <i>(*)</i>	Puntuak <i>(75 puntu)</i>	Epea urteak	Puntuak <i>(10 puntu)</i>	
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	275.543,07	75	5	10	85,00
CONSTRUCCIONES ECHAIDE S.A.	275.735,48	74,93	1	0	74,93

Beraz aurkeztutako enpresen puntuazioa guztira hau izan da:



ENPRESAK	Balio judizio baten araberakoak	Irizpide automatiko araberakoak	GUZTIRA
	Puntuak	Puntuak	Puntuak
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	14,4	85	99,4
CONSTRUCCIONES ECHAIDE S.A.	7,6	74,93	82,53

Ondorioz, eta lehen sailkatua Iparragirre Eraikuntza Lanak, S.L. izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitatzaileren erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L.k fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L.ren aldeko esleipen proposamena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du beraiek abstenitu egingo direla, lehen ere gai honetan abstenitu ziren arrazoi berarengatik.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzordeak, aldeko 3 botoz (EAJ-PNV), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), honako akordioak hartu ditu:

**LEHENA.-** Lazkaoko udalerrian Agauntza errekan, elizaren eta ikastolaren artean, oinezkoen pasabidea egiteko obraren esleipena IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L. enpresaren alde egitea. Esleipenaren prezioa, BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HIRU euro ETA ZAZPI zentimo (275.543,07€) gehi BEZari dagokion BERROGEITA HAMAZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA LAU euro ETA LAU zentimo (57.864,04€)koa

**BIGARRENA.-** Esleipenaren akordioa, proposamena aurkeztu duen enpresari jakinaraztea eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

#### IV.- SAN IGNACIO 3-KO TEILATUAREN KONPONKETAREN DERRAMAK

San Ignacio 3ko jabekideek 2023ko martxoaren 9an ospatu zuten bileran, teilatua konpontzeko bi aurrekontu aurkeztu ziren eta hauen artean, Tejas Garmendiak egindako aurrekontua onartu zen, 18.900€-takoa, gehi BEZ.

Hau dela eta, jabekide bakoitzak komunitateko kontuan 1.000 €-ko kopurua sartu beharko du apirilean, eta beste hainbeste maiatzean eta ekainean. Guztira 1.000 €-ko hiru derrama izango dira beraz.

Udala, San Ignacio 3ko pisu baten jabea izanik, Tokiko Gobernu Batzordeak, 1.000 €-ko hiru derrama horiek ordaintzea onartu du.

## V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

### Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 13-11-03 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja 2023ko martxoaren 24tik aurrera, heriotzagatik.
- 23-11-02 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea, martxoaren 8tik aurrera, astelehenetik ostiralera egunero 4 ordu, atentzio pertsonal eta etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena % 61ekoa izango da.
- 22-11-04 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja 2023ko apirilaren 1etik aurrera, familiak eskatuta.

### Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 22-01-015 zenbakidun esped.: Etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 83,25 €-ko dirulaguntza ematea urtariletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 225 €-ko dirulaguntza ematea urtariletik abendura. Eman daitekeenaren % 90 da.
- 23-01-005 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 € ematea martxotik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250 €-ko dirulaguntza ematea martxotik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 22-01-005 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtariletik martxora. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 22-01-014 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtariletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250 €-ko dirulaguntza ematea urtariletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 22-01-010 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 85,10 € ematea urtariletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 230 € ematea urtariletik abendura. Eman daitekeenaren % 92 da.
- 23-01-004 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 € ematea martxotik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.

### Gureak lantegira joateko garraiorako dirulaguntza.-

- 23-17-01 zenbakidun esped.: Gureak lantegira joateko urtean 447,70 € ematea. Zehazki 40,70€ hilean, abuztuan izan ezik.
- 23-17-02 zenbakidun esped.: Gureak lantegira joateko urtean 447,70 € ematea. Zehazki 40,70€ hilean, abuztuan izan ezik.





Esku-hartze proposamena.-

- 23-15-01 zenbakidun esped.: hasierako ikerketa eta ebaluazio txostena egitea eta hura egiteko 950 €-ko aurrekontua onartzea.
- 23-15-02 zenbakidun esped.: hasierako ikerketa eta ebaluazio txostena egitea eta hura egiteko 950 €-ko aurrekontua onartzea.
- 23-15-03 zenbakidun esped.: hasierako ikerketa eta ebaluazio txostena egitea eta hura egiteko 950 €-ko aurrekontua onartzea.
- 23-15-04 zenbakidun esped.: balorazio esku-hartze familiarra egitea eta hura egiteko 4.202 €-ko aurrekontua onartzea.

VI.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Jarduera ekonomikoko batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jarduerari dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

Merkatariei 2023ko irekiera eta obregatik.-

Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueraren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023rako onartutako dirulaguntzak direla eta (jardueren irekiera eta modernizazioa) jasotako honako eskaeraren ondorengo dirulaguntzaren ordainketa egitea:

<b>MERKATARIA</b>	<b>GUZTIRA</b>
Fco. José Bernal López y Otro CB	649,14 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>649,14 €</b>

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.03.430.00 partidatik egingo da.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Amundarain zinegotziak (EH Blidu) galdetu du ea kalean ezarriko den panel informatiboa Itzala tabernaren aurrean instalatu behar duten.

Alkateak baiezkoa dio, apirilaren 27an etorriko direla instalatzera.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bost eta erdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.